

XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1673

AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak 8., 21. eta 40. artikuluetan ezartzen duenez –familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretua aldatzen duen martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuaren bidez emandako idazkeran–, familia-errenta estandarizatuaren arabera zehaztuko da seme-alabak, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeagatik eta seme-alaba adingabeen zaintzaileak kontratatzeagatik langileei emandako laguntzen zenbatekoa. Hori kalkulatzeko, aintzat hartuko dira familia-unitatearen osaera, familia-errentaren maila eta familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak ematen dien irispidearekin.

Halaber, eransten du familia-politiketan eskumena duen sailak onartuko dituela, haren sailburuaren agindu bidez, familia-errenta estandarizatuaren atalaseak eta dagozkien laguntzen zenbatekoak edo portzentajeak; edonola ere, eta, seme-alabak, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeagatik langileei emandako laguntzei dagokienez, berrmatuko da emakumeei eta gizonei pareko laguntza ekonomiko ematea.

Horiek horrela, gorago aipatutako laguntza ekonomikoko lerro guztiei familia-errenta estandarizatuaren sistema aplikatzeak, zehazki zenbateko laguntza dagokion zehazteko irizpide gisa, berarekin dakar onartzea aplikatzen zaizkien familia-errenta estandarizatuaren atalase ezberdinak eta horiei aplikatzen zaizkien zenbateko ekonomikoak, seme-alabak edo mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeagatik langileei emandako laguntzen kasuan, eta onartzea laguntza-portzentajeak, seme-alaba adingabeen zaintzaileak kontratatzeagatik langileei emandako laguntzei dagokienez.

Bestalde, ekainaren 29ko aipatu 177/2010 Dekretuaren 11.1, 24.1 eta 44.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera –martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuaren bidez aldatuak–, familia-politiketan eskumena duen sailburuaren agindu bidez onartutako eskabide normalizatuan aurkeztuko dira eskabideak.

Azaldutakoagatik,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da onartzea familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8., 21. eta 40. artikuluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea, eta onartzea 11.1, 24.1 eta 44.1 artikuluetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran).

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera gauzatutako jarduera diruz lagungarriei aplikatuko zaizkie familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak.

3. artikulua.– Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoak.

1.– Honako hau da seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere egutegiko 365 eguneko aldiari dagokionez eta dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez–:

a) Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 3.500 euroko laguntza emango zaio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu.

b) Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 2.942 euroko laguntza emango zaio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu.

c) Seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizten duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu:

– Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 2.800 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.500 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 2.200 euro.

d) Seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizten duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu:

– Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 2.354 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.140 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 1.819 euro.

2.– Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu edo diruz laguntzeko moduko jarduna egutegiko 365 egun baino gutxiagoko aldietan gauzatu badu, laguntzen zenbatekoa proportzionalki kalkulatu da.

4. artikulua.– Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoa.

1.– Honako hau da mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere, egutegiko 365 eguneko aldiari dagokionez eta dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez–:

a) Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 3.500 euroko laguntza emango zaio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatuz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu.

b) Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 2.942 euroko laguntza emango zaio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatuz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu.

c) Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatuz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu:

– Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 2.800 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.500 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 2.200 euro.

d) Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulatuz (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu:

– Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 2.354 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.140 euro.

– Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 1.819 euro.

2.– Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu edo diruz laguntzeko moduko jarduna egutegiko 365 egun baino gutxiagoko aldietan gauzatu badu, laguntzen zenbatekoa proportzionalki kalkulatuko da.

5. artikulua.– Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoa.

1.– Honako hau da osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez–:

a) Oso osasun-egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 863 euroko laguntza emango zaio, 90 egun natural dagokiena, baldin eta, familia eta lana

bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu.

b) Mendekotasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen duen langileari 725 euroko laguntza emango zaio, 90 egun naturali dagokiena, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu.

c) Oso osasun-egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, 180 egun naturali dagozkienak, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua bada:

- Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 1.380 euro.
- Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 1.232 euro.
- Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 1.085 euro.

d) Oso osasun-egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duen langileari laguntza hauek emango zaizkio, 180 egun naturali dagozkienak, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 21.1 artikuluan xedatuaren arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua bada:

- Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo handiagoa bada: 1.161 euro.
- Lanaldi-murrizketa % 40koa edo handiagoa eta % 45etik beherakoa bada: 1.055 euro.
- Lanaldi-murrizketa % 33koa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa bada: 897 euro.

2.– Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu edo diruz laguntzeko moduko jarduna egutegiko 365 egun baino gutxiagoko aldietan gauzatu badu, laguntzen zenbatekoa proportzionalki kalkulatu da.

6. artikulua.– Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik emandako laguntzen zenbatekoa.

Enplegu-emaileak Etxeko Langileei buruzko Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren kotizazioari legez egin beharreko ekarpenaren % 100 lagunduko da diruz, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 40.3 artikuluan xedatutako arauen arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuaren bidez emandako idazkeran), 20.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatua badu.

Enplegu-emaileak Etxeko Langileei buruzko Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren kotizazioari legez egin beharreko ekarpenaren % 75 lagunduko da diruz, baldin eta, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 40.3 artikuluan xedatutako arauen arabera kalkulaturik (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuaren bidez emandako idazkeran), 20.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatua badu.

7. artikulua.– Laguntza-eskaerak.

Laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak onartzen dira; honako hauek dira, eta agindu honi erantsi zaizkio:

a) Eskabide normalizatuan egingo dira seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen hasierako laguntza-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_menores_2014/eu_concilia/conciliacion_hijos_menores.html

Eskabide normalizatuan egingo dira seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzaren jarraipen-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_menores_2014/eu_concilia/conciliacion_hijos_menores.html

b) Eskabide normalizatuan egingo dira mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larriandauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen hasierako laguntza-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_familiares_2014/eu_concilia/conciliacion_familiares_2010.html

Eskabide normalizatuan egingo dira mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larriandauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzaren jarraipen-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_familiares_2014/eu_concilia/conciliacion_familiares_2010.html

c) Eskabide normalizatuan gauzatuko dira seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratzeagatik egiten diren hasierako laguntza-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_cuidadores_2014/eu_concilia/conciliacion_cuidadores.html

Eskabide normalizatuan gauzatuko dira seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratzeagatik egiten diren laguntzen jarraipen-eskaerak. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/eu/contenidos/ayuda_subvencion/conciliacion_cuidadores_2014/eu_concilia/conciliacion_cuidadores.html

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko ekainaren 30eko Agindua, zeinen bidez onartzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskabide normalizatuak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Garapena eta betearazpena.

Gizarte Politiketako sailburuordeari aginpidea ematen zaio agindu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak hartzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aginduaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita;

2015eko apirilaren 14a, asteartea

bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 1a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.

2015eko apirilaren 14a, asteartea



EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario



SEMEAK EDO ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA HARTU DUTEN EDO LANALDIA MURRIZTU DUTEN LANGILEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEA

0.- ADMINISTRAZIOAK BETE BEHARREKOA:	
Espedientea: <input type="checkbox"/> N <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <small>URTEA L.H. ZENBAKIA</small>	SARTU IZANAREN ERREGISTROA

IRAKURRI ARRETAZ ESKABIDEA BETETZEKO ARGIBIDEAK

00789

1.- ESKATZAILEAREN DATUAK: Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN edo AIZ agertzen direnekin.

1. abizena:	2. abizena:
Izena:	NAN/AIZ: <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> - <input type="checkbox"/> LETRA
Sexua: gizonezkoa <input type="checkbox"/> emakumezkoa <input type="checkbox"/>	
Egoera Zibila: ezkongabea <input type="checkbox"/> ezkondua <input type="checkbox"/> izatezko bikotea <input type="checkbox"/> banandua-dibortziatua <input type="checkbox"/> alarguna <input type="checkbox"/>	
Haurrerekiko harremana: aita <input type="checkbox"/> ama <input type="checkbox"/> tutorea <input type="checkbox"/> hartzailea <input type="checkbox"/>	
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna <input type="checkbox"/>	Genero-indarkeriaren biktima <input type="checkbox"/>
Familiaren bizilekua: Kalea:	zk.: Solairua: Letra:
P.K.:	Herria: Lurralde Historikoa:
Mugikorra:	Telefonoa: E-maila:
Erroldatuta daramazun denbora (markatu X batez dagokion laukitxoak):	
Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta nago eta egon naiz etenik gabe azken 12 hilabete hauetan.	
<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ

2.- ESKATZAILEAREN (adingabearen aita/ama, hartzailea edo tutorea, adingabea zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duena) EZKONTIDEAREN EDO BIKOTEKIDEAREN DATUAK.

1. abizena:	
2. abizena:	Izena:
NAN/Pasaportea/AIZ: <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> - <input type="checkbox"/> LETRA	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasuna <input type="checkbox"/>

NON AURKEZTU ETA NORA BIDALI: ZUZENEAN

Ramiro de Maeztu, 10 - 01008 VITORIA-GASTEIZ Gran Via, 85 - 48011 BILBAO Andia 13, 20004 - DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Eskaera telematikoa aurkezteko aukeraren berri izateko, begiratu hemen: www.euskadi.net/familia



2015eko apirilaren 14a, astearta

3.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK:

Jaiotzaren, adopzioaren edo harreraren hartzearen data*			IZEN-ABIZENAK	% 33ko edo hortik gorako desgaitasuna, edo mendetasuna	
URTEA	HILABETEA	EGUNA		Bai	Ez
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			

(*) Adopzio, tutoretza edo harreraren kasuan, ebazpenaren data adierazi.

Banantze, dibortzio edo baliogabatasunaren kasuan, eskatutako eszedentzian edo lanaldi-murrizketan zainduko den semearen edo alabaren zaintza eta babespea honako honi dagokio:

laguntza eskatu duenari biei, zaintza eta babespe konpartitu gisa

Mesedez, egoera hauetakoren batean bazaude, markatu dagokion laukitxoak:

ALDIZKAKO kontratu FINKOA daukat; kasu horretan, datu hori enpresak egiaztatu beharko du.

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTE baten eraginpean nago; kasu horretan, datu hori enpresak ziurtatu beharko du

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa ESKOLA OPORRALDIAN baliatu da. (Ikus betetzeko argibideak).

Diruz lagundutako aldi zehar, egun hauetan baliatu naiz GREBA-ESKUBIDEAZ

4.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK:

Komunikatzeko hizkuntza:	<input type="checkbox"/> Euskara	<input type="checkbox"/> Gaztelania
Jakinarazpen-bidea:	<input type="checkbox"/> Ohiko posta	<input type="checkbox"/> Telematikoa

Jakinarazpen-bide hau aukeratzen baduzu, nahitaezkoa da NAN elektronikoa, ONA txartela, edo onartuta dagoen beste txartelen bat edukitzea.

Zure espedientea erabakita dagoenean e-mail edo SMS bat jasoko duzu (aukeratu duzun jakinarazpen-oharra egiteko bidearen arabera), eta hau jakinaraziko zaizu: www.euskadi.net/familia webgunera jo behar duzula, identifikazio-txartela txertatu eta "Nire gestioak" atalean sartu, eta hor ikusiko ahal izango duzu ebazpena osorik.

Jakinarazpen-oharra egiteko bidea: SMSa E-maila

2015eko apirilaren 14a, astearta

ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik, (izena eta bi abizenak)
 NANarekin/AIZrekin egiaztatuak.....

honako hau ADIERAZTEN DUT MODU ARDURATSUAN:

Lehena

- a-Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen eskutik.
- b- €-ko laguntza jasotzen ari naiz, honako Administrazio honek emana:

- c-€-ko laguntza eskatu diot honako Administrazio honi:
 Administrazio horrek oraindik ez du ebazpenik eman.

Bigarrena

Ez nago zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, eta ez nago, halaber, hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak esanbidez aipatuta, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarren xedatutakoari jarraiki.

Hirugarrena

Ez nago sartuta sartuta nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Laugarrena

Hartu dudana eta diru-laguntza eskatzeko xede den eszedentziak edo lanaldi-murrizketak eragin du nire ohiko lanaldiarengatik jasotzen dudana soldataren benetako murrizketa.

Bostgarrena

Irakurri ditut inprimaki hau betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko eranskinak, eta egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskabidean bilduta dauden datuak eta eskabideari erantsita doan dokumentazioa.

Seigarrena

Laguntza hauen onuradun izateko indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen ditut eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa dut; horretaz gain, laguntza baliatzeko denboraldi osoan baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut.

HAU ESKATZEN DUT:

Familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntza eman diezadatelara

....., 20 (e) ko.....ren (a)

ESKATZAILEAREN SINADURA

2015eko apirilaren 14a, astearta

HASIERAKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a- Eskatzailearen eta gaur eguneko ezkontide edo bikotekidearen NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia, salbu eta organo kudeatzaileari baimena eman bazaio NAN edo AIZa begiratzeko, egiaztatze edo frogatzeko.

b- Laguntza eskatzen duen pertsonaren bizikidetz-unitateko kide guztiak biltzen dituen familia-liburu, jaiotza-agiri edo parekoren baten fotokopia.

c- Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratua/k, bizilekuan bizi diren lagun guztien zerrenda eta eskatzailea udalerrian erroldatu den eguna barne. Laguntza-eskaera aurkezten den eguna baino hilabete bat baino lehenago emandako erroldatze- ziurtagiriak ez dira onartuko.

Eskabidea aurkeztu aurreko urtean eskatzailea ez bada bizi izan edo ez bada jarraitutasunez erroldatuta egon Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, egungo erroldatze-ziurtagiriaz gain (ziurtagiri horretan eskatzailearekin batera bizi diren lagun guztiak bilduko dira), azken hamar urte hauetan bost urtez jarraian EAeko udalerriren batean erroldatuta egon dela egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

d- PFEZ errenta-aitorpenaren fotokopia, eskabidea aurkezten den dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horrelakorik ez badago, PFEZari egotzeko moduko diru-sarreraren ziurtagiria dagokion administrazioa emandakoa, kasu hauetakoren batean badago soilik:

- EAetik kanpo aurkeztu izana, edo aurkeztu beharra eduki izana, PFEZaren aitortzea, eskariaren dataren aurreko bi urteetako zergaldiari dagokiona
- Azken hiru urteetan, aldatetaren bat identifikazio-dokumentuan (AIZetik NANera aldatzea, abizenen grafia edo ordena, besteren bat...)
- Pasaportearekin identifikatzea

e- Eskatzaileak zerbitzuak ematen dituen enpresaren edo erakundearen ziurtagiria, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa zehatz-mehatz nola gauzatu den egiaztatzen duena (eskaera honetan eredu bat dago). Adierazitako ziurtagiriak honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu gutxienez:

- eskubide hori zenbat denboratan baliatu den.
- eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu aurretik langileak egiten zuen lanaldia (kontratuaren arabera, ezein eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik kontuan izan gabe) eta lanaldi osoarekiko zuen harremana aplikatzen ari den hitzarmen kolektiboaren arabera, eta
- lanaldi-murrizketaren kasuan, langileak kontratuaren arabera zuen ohiko lanaldiarekiko duen murrizketa, ezein eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik kontuan izan gabe.

Ziurtagiria eskumena duen pertsonak sinatu eta zigilatu beharko du. Ez da onartuko egiaztatzen den aldia amaitu aurreko data duen enpresa-ziurtagiririk.

f- Eszedentziaren kasuan, Gizarte Segurantzaren baja eman dela egiaztatzen duen partearen kopia, eta/edo lanaldi- murrizketaren kasuan, Gizarte Segurantzaren datuak aldatu direla egiaztatzen duen partearen kopia.

Eskatzailea Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean kotizatzen ez duen kooperatiba-sozietate bateko bazkide langilea edo lan-bazkidea bada:

- eszedentzietan, erakunde pribatuan edo kotizatzen duten Gizarte Segurantzaren Erregimenean baja hartu izanaren ziurtagiria.
- erakunde pribatuari edo kotizatzen duten Gizarte Segurantzaren Erregimenari egindako kotizazioan aldatetarik eragin ez duten lanaldi-murrizketetan, kooperatiba-sozietateetako bazkide langile edo lan-bazkide izatearen ziurtagiria, kotizazio mota, eta lanaldi-murrizketaren ondorioz mota hori aldatu ez izanaren ziurtagiria.

g- Hirugarrenaren altaren fitxa, eskatzailearen datu-bankuak adierazten dituen. Eskabideari erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko duzu, zure banku-erakundea hauetako zein den kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOIA, CAIXABANK, BBVA edo BANCO SANTANDER.

Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu duzula jakinarazten baduzu, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa eta, hortaz, aldaketa hori ez da berehalakoa izango

h- Izatezko bikotea izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria, salbu organo kudeatzaileari baimena eman bazaio egiaztatze, baieztatze edo ziurtatzeko inskripzioa izatezko bikote gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan.

i- Adopzioaren, tutoretzaren edo harreraren kasuan, egoera hori gauzatzeari buruzko ebazpen judizialaren edo dokumentu baliokidearen fotokopia.

j- Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo epai judizialen bitartez eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeko arrazoia den adingabearen zaintza eta babespea esleituko duen ebazpen judizialaren fotokopia aurkeztu beharko da.

k- Familia-unitateko kideren bati % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna -edo menpetasuna-onartu bazaio, organo eskudunak indarreko minusbaliotasun-maila aitortzeko emandako ziurtagiriaren fotokopia.

l- Genero-indarkeriaren biktime izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiria

2015eko apirilaren 14a, asteartea

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

Bete datuak ondoren emango diren argibideak kontuan hartuta.

0 atala Administrazioak beteko du.

Zenbakizko datuak eskuinera doituiko dira, hutsik geratzen diren laukitxoak ezkerreko aldekoak izango dira, baten bat hutsik geratzen bada.

NANaren laukitxoak betetzeko adibidea:

7	8	2	5	6	9	1	Z
							LETRA

ESKATZAILEAREN DATUAK: Adingabearen zaintza eta babespea esleitu zaion eta adingabe hori zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duen pertsona da –aita edo ama, hartzaila edo tutorea–.

- NAN/AIZ: Eskatzaileak Espainiako herritartasuna badu, haren NANaren zenbakia idatziko da; Espainiako herritartasuna ez badu, AIZren zenbakia eman beharko du.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Familiaren bizilekua: Atal horretan adierazten den bizilekua izango da jakinarazpenak egiteko erabiliko dena.
- Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

EZKONTIDEAREN EDO BIKOTEKIDEAREN DATUAK: Beste pertsonaren (adingabearen aita/ama, hartzaila edo tutorea, adingabea zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenaren) datuak dira.

Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEI BURUZKO DATUAK: Familia-unitatean elkarrekin bizi diren seme-alaba guztiak adierazi behar dira. Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna badu haietakoren batek, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

ESKOLA OPORRALDIAK:

• Eskola-oporraldietan baliatutako eszedentziak eta murrizketak. Modalitate horri heltzeko, diruz laguntzeko moduko jarduna honakoaldi hauetan hasi eta amaitu beharko da:

- Aste Santuko eskola-oporraldia: Ostegun Santuaren aurreko astelehenetik Pazko Astelehenaren ondoko igandera bitarteko bi aste osoak.
- Udako eskola-oporraldia: ekainaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia, bi egun horiek barnean hartuta.
- Gabonetako eskola-oporraldia: abenduaren 21etik hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 9ra bitarteko aldia, bi egun horiek barnean hartuta.

JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK: Oharrak eta jakinarazpenak egiteko eskatzaileak hautatzen duen modua.

HIRUGARRENAREN ALTAREN FITXA: Banku-datuak adierazteko dokumentua da, eta derrigor aurkeztu beharra dago. Eskabideari erantsita dauden ereduetatik bat aukeratu beharko duzu, zure banku-erakundea hauetako zein den kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOIA, CAIXABANK, BBVA edo BANCO SANTANDER.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAREN HASIERA. Diru-laguntzaren xede den egoeran (lanaldi-murrizketa edo eszedentzia) segidako 59 egun eman ostean.

Diru-laguntza jasotzeko moduko jardunean emandako lanaldi bakoitzari dagokion laguntza baliatzen denetik zenbatzen hasita urtebete igaro baino lehen aurkeztu behar da.

Eskaerak epez kanpo aurkezten badira (hau da, baliatu zenetik 365 egun baino gehiago igaro badira) adierazitako epetik kanpoko egunei dagokien laguntza ez da emango.

ADIBIDEA

MURRIZKETA/ESZEDENTZIA EGOERAREN HASIERA	ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA	
2014ko abuztuaren 1a	2014ko irailaren 29tik	2015eko abuztuaren 1era
2014ko apirilaren 1a	2014ko maiatzaren 30etik	2015eko apirilaren 1era

- Diru-laguntza epea amaitu eta egun bat geroago eskatzen bada (lehenengo adibidean, 2015eko abuztuaren 2an), egun bati dagokion zenbatekoa soilik galduko litzateke. Abuztuaren 3an eskatzen bada, bi egun galduko litzuzke, eta horrela, hurrenez hurren.

OSO GARRANTZITSUA

Ondorengo laguntza-eskaerak, JARRAITZEKO ESKAERAK azken laguntza eskaeratik **GUTXIENEZ LAU HILABETE** igaro ostean aurkeztu ahal izango dira.

2015eko apirilaren 14a, astearta

ESKATZAILEAREN ETA HAREN EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN BAIMENA**ESKATZAILEA**Izena eta bi abizenak _____
NAN/AIZ _____**EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA**Izena eta bi abizenak _____
NAN/AIZ _____**BAIMENA EMATEN DIOT LAGUNTZA KUDEATZEN DUEN ORGANOARI**

	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez nire <u>nortasun-agiri nazionala edo atzerritarren identifikazio-zenbakia</u> begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Izenpetuta
ESKATZAILEA**Izenpetuta**
EZKONTIDEA/BIKOTEKIDEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak xedetutakoa betez, Eusko Jaurilaritzaren Familia Politiketako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZAK izeneko fitategian sartu direla. Eusko Jaurilaritzaren Familia Zuzendaritza da fitategi horren titularra, eta adingabeak zaintzeko eszedentziatarako edo lanaldi-murrizketetarako laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste persona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia Politiketako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz). Horretaz gain, jakinarazten dizugu banku-datuak eta posta komunikaziokoak hirugarrenen erregistroan jasoko direla, ordainketak egin ahak izateko. Erregistro hori Eusko Jaurilaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kudeatzen du.

2015eko apirilaren 14a, asteartea

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA

DATU EKONOMIKOAK ESKABIDE HAU AURKEZTU AURREKO BI URTEEI DAGOZKIE

ATAL HAU DERRIGOR BETE BEHARKO DA ESKABIDE GUZTIETAN, kasu hauetan izan ezik:

- 1) Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitorpena EAEtik kanpo egin bazenuen edo egitea tokatzen bazitzaizun
- 2) Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIza izatetik NANA izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenen hurrekera aldatu baduzu, eta abar)
- 3) Pasaportearekin identifikatzen bazara

Kasu horietan, eskatzaileak derrigor aurkeztu beharko du PFEZ errenta-aitorpenaren fotokopia, eskabidea aurkezten den dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horrelakorik ez badago, PFEZari egozteko moduko diru-sarreraren ziurtagiria dagokion administrazioa emandakoa.

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Abizenak: 1..... 2.....
Izena: NAN/AIZ:

EZKONTIDEAREN/BIKOTEKIDEAREN DATUAK:

Abizenak: 1..... 2.....
Izena: NAN/AIZ:

A.- BAIMENA EMATEN DUZU FORU-OGASUNARI DATUAK ESKATZEKO?	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Ez dut baimenik ematen, eta gutxienerako laguntzari heltzen diot	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ematen dut baimena datuak eskatzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
B.- AURKEZTU AL ZENUEN ERRENTA-AITORPENA?		
Ez nuen errenta-aitorpena aurkeztu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Aurkeztu nuen errenta-aitorpena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
C.- ZER MOTATAKO ERRENTA-AITORPENA AURKEZTU ZENUEN?		
Banakako aitorpena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baterako aitorpena, egungo ezkontide edo bikotekidearekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baterako aitorpena, aurreko ezkontide edo bikotekidearekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Banakako eta baterako aitorpena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
D.- ZER LURRALDE HISTORIKOTAN AURKEZTU ZENUEN EDO AURKEZTU BEHAR ZENUKEEN?		
Arabian	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bizkaian	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gipuzkoan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

....., 20..... (e)ko ren (a)

IZPTA: ESKATZAILEA

IZPTA: EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

DIRU-SARRERARIK EGIAZTATZEN EZ BADA, GUTXIENERKO LAGUNTZA jasoko da

2015eko apirilaren 14a, astearta

SEMEAK EDO ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA EDO LANALDI MURRIZKETA DELA MEDIO DIRU-LAGUNTZA ESKATU DUENAK ZERBITZUAK EMATEN DITUEN ENPRESAREN EDO ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA ⁽¹⁾

Enpresaren edo erakundearen izena:
 IFZ: Tel.: E-maila:

Enpresaren edo erakundearen plantilla (markatu dagokion aukeran): <=10 11-50 51-250 >251

Markatu **X** batez enpresan gauzatzen den jardueraren sektorearen kodea:

JARDUERA SEKTOREA	KODEA	
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOZAINZA	A	<input type="checkbox"/>
ARRANTZA	B	<input type="checkbox"/>
ERAUZKETA INDUSTRIAK	C	<input type="checkbox"/>
ENERGIA PRODUKTUEN ERAUZKETA	CA	<input type="checkbox"/>
BESTELAKO MINERALEN ERAUZKETA	CB	<input type="checkbox"/>
MANUFAKTUREN INDUSTRIA	D	<input type="checkbox"/>
JANARIEN, EDARIEN ETA TABAKOAREN INDUSTRIA	DA	<input type="checkbox"/>
EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	DB	<input type="checkbox"/>
LARRUGINTZA ETA OINETAKOEN INDUSTRIA	DC	<input type="checkbox"/>
ZURGINTZA ETA KORTXOGINTZA	DD	<input type="checkbox"/>
PAPERGINTZA: EDIZIOA ETA ARTE GRAFIKOAK	DE	<input type="checkbox"/>
PETROLIO FINKETA ETA ERREGAIEN TRATAMENDUA	DF	<input type="checkbox"/>
INDUSTRIA KIMIKOA	DG	<input type="checkbox"/>
KAUTXUAREN ERALDAKETAREN INDUSTRIA	DH	<input type="checkbox"/>
METALIK GABEKO BESTELAKO MINERALEN INDUSTRIAK	DI	<input type="checkbox"/>
METALURGIA ETA METALEZKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA	DJ	<input type="checkbox"/>

JARDUERA SEKTOREA	KODEA	
MAKINAGINTZA	DK	<input type="checkbox"/>
MATERIAL ETA EKIPU ELEKTRIKOAREN INDUSTRIA, ELEKTRONIKA	DL	<input type="checkbox"/>
GARRAIORAKO MATERIALGINTZA	DM	<input type="checkbox"/>
DENETARIKO MANUFATURA INDUSTRIAK	DN	<input type="checkbox"/>
ELEKTRIZITATEAREN, GASAREN ETA URAREN EKOIZPENA ETA BANAKETA	E	<input type="checkbox"/>
ERAIKUNTZA	F	<input type="checkbox"/>
MERKATARITZA, IBILGAILUEN KONPONKETA	G	<input type="checkbox"/>
OSTALARITZA	H	<input type="checkbox"/>
GARRAIOA, BILTEGIRATZEA ETA KOMUNIKAZIOAK	I	<input type="checkbox"/>
FINANTZA BITARTEKARITZA	J	<input type="checkbox"/>
HIGIEZINEN JARDUERAKO ETA ALOKAIRUKOAK	K	<input type="checkbox"/>
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, DEFENTSA ETA GIZARTE SEGURANTZA	L	<input type="checkbox"/>
HEZKUNTZA	M	<input type="checkbox"/>
OSASUN ETA ALBAITARITZA JARDUERAK	N	<input type="checkbox"/>
BESTELAKO GIZARTE JARDUERAK ETA EMANDAKO ZERBITZUEN ARLOKOAK	O	<input type="checkbox"/>
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	Q	<input type="checkbox"/>

..... jauna/andreak
 NAN:, adierazitako enpresaren edo erakundearen ORDEZKARIAK, honako hau **EGIAZTATZEN DU (eszedentzia hartu duen edo lanaldia murriztu duen pertsonaren izen - abizenak):**
 jaunak/andreak (lantokiaren helbidea eta udalerrria)
 eskaintzen dituela bere zerbitzuak.

Jarri **X** eszedentzian edo lan murrizketan dagoen langilea eta egiaztatzen duen enpresa edo entitatea lotzen dituen lan harreman motari dagokion laukitxoan

JARDUERA SEKTOREA	KODEA	
BESTEREN KONTURAKO LANGILEA, ERAKUNDE PRIBATUAN	A1	<input type="checkbox"/>
ERAKUNDE PRIBATUKO LAN BAZKIDEA	A2	<input type="checkbox"/>
ESTATUKO ADMINISTRAZIOKO ESTATUTU LANGILEAK	E1	<input type="checkbox"/>
AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO ESTATUTU LANGILEAK	E2	<input type="checkbox"/>
FORU ADMINISTRAZIOKO ESTATUTU LANGILEAK	E3	<input type="checkbox"/>
UDAL ADMINISTRAZIOKO ESTATUTU LANGILEAK	E4	<input type="checkbox"/>
ESTATUKO ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOA	F1	<input type="checkbox"/>

JARDUERA SEKTOREA	KODEA	
AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOA	F2	<input type="checkbox"/>
FORU ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOA	F3	<input type="checkbox"/>
UDAL ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOA	F4	<input type="checkbox"/>
LAN KONTRATUDUN ESTATUKO LANGILEAK	L1	<input type="checkbox"/>
LAN KONTRATUDUN AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANGILEAK	L2	<input type="checkbox"/>
LAN KONTRATUDUN FORU LANGILEAK	L3	<input type="checkbox"/>
LAN KONTRATUDUN UDALEKO LANGILEAK	L4	<input type="checkbox"/>

(1) Enpresaren ziurtagiria jatorrizkoa izango da, eta ez da inola ere fotokopiarik onartuko, ezta zuzenketarik edo zirriborrorik duen ziurtagirik ere.

2015eko apirilaren 14a, astearta

Markatu X batez eszedentzia hartu duen edo lanaldia murriztu duen langilearen eta hau egiaztatzen duen enpresaren edo erakundearen arteko kontratu mota:

KONTRATU MOTA	KODEA	
MUGAGABEA	1	<input type="checkbox"/>
ALDI BATERAKOA < 1 HILABETE	2	<input type="checkbox"/>
ALDI BATERAKOA: HILABATE BAT 6 HILABETERARTE	3	<input type="checkbox"/>

KONTRATU MOTA	KODEA	
ALDI BATERAKOA: 6 HILABETETIK URTEBETERA	4	<input type="checkbox"/>
ALDI BATERAKOA > 1 URTEA	5	<input type="checkbox"/>
BESTELAKOAK	6	<input type="checkbox"/>

AURRETIKAKO LANALDIA KONTRATUAREN ARABERA

